

## BALOREZKO PROPOSAMENA

---

Lehenengo momentutik argi geneukan gure gizarteari laguntzeko ideia bat gauzatu nahi genuela. Zehazki, behar handiko talde bati lagundu nahi genion, noizbehinka ahaztuak direnak eta sarritan diskriminatuak direnak. Horien artean menpekotasuna duten pertsonen. Haientzako zerbitzu bat aurrera eramatea zen gure helburu nagusia, beste pertsonen menpe hainbeste ez egoteko. Horrela APPEDENTZIA jaio zen.

APPEDENTZIA menpekotasuna duten pertsonen eta haien familiei bizitza erraztea haien autonomia pertsonala hobetzeko helburuarekin sortu zen. Zehazki, aplikazioaren hartzaile nagusiak dira ikusmen-urritasun larriak dituzten pertsonak, desgaitasun intelektuala duten pertsonak eta mugitzeko laguntza interaktibo erraza behar duten menpeko pertsonak. Aplikazioak xehetasun handiko GPS koordinatuak dituen mapa-kartografia bat du establezimenduak edo tokiak zehazki kokatu ahal izateko.

Itsuen kasuan, aplikazioak ahots bidezko azalpena eskaintzen du. Hala ere, funtzio hau itsuei zuzenduta badago ere, aplikazioan edonork erabili ahal izango du. Horretarako, nahikoa izango da deskargatzeko unean erabili nahi den formatua aukeratzea, kasu honetan "ahots" modulua.

Desgaitasun intelektuala duten pertsonen kasuan, deskargatzeko unean "interaktibo" modulua hautatuko da. Aplikazioaren modulu honetan, identifikatu daitezkeen irudi bisualak (emotikonoen antzekoak) eta mapak erabiltzen dira. Horrela, oso modu bisual eta errazean, pertsona programatutako lekura edo tokietara gidatuko da, hala nola okindegira, eskolara, farmaziara...

Lekuak emotikono ezagunekin identifikatuko dira, baina erabiltzaileak, nahi izanez gero, emotikonoak gehitu ahal izango dizkio "bere neurriari", bakoitzaren beharren arabera (agian establezimenduaren benetako argazki bat ipinita).

Gainera, APPEDENTZIA-ren erabiltzaile nagusia kontutan hartuta, segurtasuna aplikazioan integratuta egon beharko lukeela iruditzen zaigu, ezinbesteko baldintza da. Hori dela eta, bi segurtasun-sistema ditu. Alde batetik, arazoren bat izanez gero edo larrialdiren bat sortuz gero, erabiltzaileak, botoi bat sakatuta, berehalako laguntza jasoko du (Gurutze Gorriarekin konektatuta dago). Bestalde, aplikazioak kamera bat du, eta, horri esker, familiak urruneko kontrolaren bidez, edozein momentutan pertsona non dagoen jakingo du.

APPEDENTZIA-ren bidez, aplikazio batean ahalik eta mapa-gida zehatzena, audiolaguntza argi eta zehatza, erabiltzaileak aplikazioa bere behar partikularren arabera pertsonalizatzeko prozesua eta telelaguntza txertatu nahi ditugu. Hori da gure balio kualitatiboa, gure balio erantsia eta merkatuan zerbait berria izateagatik bereizten gaituena. Izan ere, merkatuan egin genuen inkesta bat aztertu ondoren, emaitzek agerian utzi zuten inkestatuek, nahiz eta oso beharrezkotzat jo horrelako aplikazio bat, ez zutela ezaugarri horiek dituzten aplikaziorik ezagutzen. Beraz, APPEDENTZIA-ren bidez ematen diren zerbitzuen multzoak lehiarekiko diferentzia markatzen du, hala nola Google Mapsekiko edo Gurutze Gorriaren larrialdiko botoiarekiko desberdintasuna. Hona hemen ikesta honetarako esteka:

<https://drive.google.com/file/d/1ADCRryjkcI561KfUy4yjE2m7FAIbEdAj/view?usp=sharing>

Aipatzekoa da Google Maps edo Waze bezalako beste aplikazio batzuekin alderatuta, APPEDENTZIA askoz erakargarriagoa, interaktiboagoa eta erabiltzeko errazagoa dela



## APPELIZAZIOA

erabiltzaileak nahi dituen establezimenduak gehitzea ahalbidetuz (horren ondorioz, kartografia ez da zaharkitua geratzen). Jarraibide argiak ematen ditu zirkulazio-argiak, zebra-bideak edo errepidean egon daitezkeen beste zirkulazio-elementu garrantzitsu batzuk non dauden eta haien aurrean nola jardun behar den jakiteko, telelaguntzaren eta kameraren bidezko segurtasuna ahaztu gabe.